


**AURKIBIDEA****Orrialdea****Taldea**

1. Aurkibidea
2. Abendaño ikastola – Gasteiz - 5.A
3. Abendaño ikastola – Gasteiz - 5.B
4. Abendaño ikastola – Gasteiz -5.D
5. Abendaño ikastola – Gasteiz - 6.A
6. Abendaño ikastola – Gasteiz - 6.B
7. Abendaño ikastola – Gasteiz - 6.D
8. Angel Ganivet ikastetxea – Gasteiz – 5.D
9. Angel Ganivet ikastetxea – Gasteiz – 5.D1
10. Angel Ganivet ikastetxea – Gasteiz – 5.D2
11. Angel Ganivet ikastetxea – Gasteiz – 6.D
12. Angel Ganivet ikastetxea – Gasteiz – 6.D1
13. Angel Ganivet ikastetxea – Gasteiz – 6.D2
14. Angel Ganivet ikastetxea – Gasteiz – 6.D3
15. Arantzabela ikastola – Gasteiz - 5. A
16. Arantzabela ikastola – Gasteiz - 5. B
17. Barrutia ikastola – Gasteiz - 5. A
18. Barrutia ikastola – Gasteiz - 5. B
19. Barrutia ikastola – Gasteiz - 6. A
20. Barrutia ikastola – Gasteiz - 6. B
21. Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz - 5.A
22. Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz - 5.B
23. Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz - 6. maila
24. Umandi ikastola – Gasteiz - 5. A
25. Umandi ikastola – Gasteiz - 5. B
26. Umandi ikastola – Gasteiz - 5. C
27. Umandi ikastola – Gasteiz - 6. A
28. Umandi ikastola—Gasteiz-. 6. B
29. Umandi ikastola – Gasteiz - 6. C
30. Armentia Ikastola – Gasteiz - 5. A
31. Armentia Ikastola – Gasteiz - 5. B
32. Armentia Ikastola – Gasteiz - 5. D
33. Armentia Ikastola – Gasteiz - 6. A
34. Armentia Ikastola – Gasteiz - 6. B
35. Armentia Ikastola – Gasteiz - 6. D
36. Toki Eder ikastola – Gasteiz - 5. A
37. Toki Eder ikastola – Gasteiz - 5. B
38. Toki Eder ikastola – Gasteiz - 5. C
39. Toki Eder ikastola – Gasteiz - 6. A
40. Toki Eder ikastola – Gasteiz - 6. B
41. Toki Eder ikastola – Gasteiz - 6. C
42. Ramon Bajo ikastetxea – Gasteiz - 5. maila
43. Ramon Bajo ikastetxea—Gasteiz- 6. maila
44. Adurtza ikastola - Gasteiz - 5. A
45. Adurtza ikastola - Gasteiz - 5. B
46. Adurtza ikastola - Gasteiz - 6. A
47. Adurtza ikastola - Gasteiz - 6. B
48. Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz - 5. A
49. Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz - 5. B
50. Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz - 5. C
51. Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz - 5. C
52. Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz - 6. maila
53. Gasteizko bertso-eskola



### Abendaño ikastola – Gasteiz

5.A

Gepettok egin zuen  
Zurezko umea  
Ta asko maite zuen  
Zen oso trebea  
Maitagarri urdinak  
Aurkitu etxea  
Ta bihurtu Pinotxo  
Mutil dotorea

Azeri eta katua  
Maltzurak direnak  
Gauza txarrak eginez  
Ez ziren lagunak  
Han kaiolan sartuta  
Kanpoan zirkokoak  
Pena ematen dio  
hantxe egoteak

Pinotxok gezurtzean  
Sudurra luzatzen  
Ta Pinotxo negarrez  
Laguntza eskatzen  
Eta gauza txiki bat  
Txis-txis-txis hurbiltzen  
Maitagarria ukitu  
Sudurra txikitzen

Oso gezurtia da  
Gure umetxoa  
Astoa bihurtu da  
Gure gizajoa  
Buztana atera zaio  
Ez du gustukoa  
Gezurak esateko  
Ez dauka asmoa

Itsasora erori  
Balea ikusi  
Baiaeren barruan  
Egiten garrasi  
Ta Gepetto aurkitu  
eta plan bat hasi  
piper hautsa botatzen  
eginez ihesi

Pinotxok esaten du  
Joan nahi dut etxera  
Maitagarria etorri  
Pozik egotera  
Pinotxo pertsona bai  
Bihurtzeko aukera  
Guztiak zoriontsu  
Doaz bizitzera



### Abendaño ikastola – Gasteiz 5.B

Berakin ondo pasa  
Neguan zuria  
Beti dago kalean  
ikusten txoria  
(elurra)

Nire lagunarekin  
Nik filmak ikusten  
Eta txarren orain  
Horrekin ikasten  
(Alferra)

Barre egin...  
Ta asmatu ezin  
Asmakizun hau  
Ezin duzu jakin

Eguzki sistemaren  
Erdian ni nago  
Denak bueltaka daude  
Zorabiatzen dago  
(Eguzkia)

Gabonetan jartzen naiz  
Polita egiteko  
Urtero apaintzen naiz  
Jendeak gustuko  
(Gabonetako zuhaitza)

Barre egin...  
Etortzen da gauetan  
Gauza bat hartzera  
Oso txiki-txiki da  
Asmatu hau zer da

(Sagutxo Perez)  
Gu itxaroten gaude  
Jada aspertuak  
Noiz etorriko diren  
Opari guztiak  
(Errege Magoak)

Barre egin...  
Gurekin Gabonetan  
Tximiniatik igo  
Jakin behar zenuke  
Opari bat dago  
(Olentzero)

Iparra jakiteko  
Objektu zehatza  
Asmakizun hauxe  
Ezin duzu jakin  
(Ipar-orratza)

Bere amak ikusten  
Parkera begira  
Objektu borobila  
Jira eta bira  
(Baloia)



### Abendaño ikastola – Gasteiz 5.D

#### HISTORIA

Aro bat izan dela  
hau Euskal Herria  
antzinan agertu zen  
lehen agiria  
lau aro nagusiak  
hori da Egia  
aro asko daudela  
hori da historia

#### ERDI AROA

Musulmanak Arabian  
dena konkistatzen  
Parisen erregeek  
hil egin zituzten  
beste herrien kontra  
beti gerran zeuden  
Erdi Aro bizitzan  
txarto bizi ziren

#### ARO GARAIKIDEA

Aro Garaikidea  
Frankismo garaia  
jendea pobrea zen  
lehen gerra\_egia  
Euskaltzaindia sortu  
ta karlistaldia  
eta hori guztia  
da Euskal Herria

#### ANTZINAROA

Borrokalaria asko  
zeuden Italian  
Pompaelo gurea  
daukagu Iruñean  
ta tribu euskaldunak  
dauzkagu historian  
Antzinaro polita  
Daukagu Erroman

#### ARO MODERNOA

Amerikara joan  
denaz jabetu nahi  
konkistetan parte\_hartu  
Egin zuten alai  
hori egin ta gero  
han hartu zuten jai  
esploratzaile onak  
bihurtu ziren bai

#### AMAIERA

Orain ikasi dugu  
historia maitia  
esan dugun guztia  
izan da egia  
oso zaharra dela  
bai gure herria  
horrela bukatzen da  
gure historia



### Abendaño ikastola – Gasteiz

6.A

Ikastolan euskaraz  
 Forma oso onean  
 Ondo hitz egiten dugu  
 Guk gure artean  
 Oso altu egiten  
 Dugu guk euskaran  
 Euskara da gurea  
 Klasea, kalean

Euskal Herriko herria  
 Denon etxea da  
 Beti euskararekin  
 Bagoaz gu hara  
 Euskara hoberena  
 Poza ta algara  
 Tipi-tapan korrika  
 Ta aurrera Euskara

Euskararen hizkuntza  
 Hitz egin denekin  
 Euskaraz hitz egiten  
 Andereñorekin  
 Ikastolan guztiok  
 Neska mutilekin  
 Euskaraz hitz egingo  
 Dugu elkarrekin

Euskara beti dago  
 Herri ta hiritan  
 Agertzen zaigu putzu  
 Baita ametsetan  
 Eta ezin da falta  
 Egun guztietan  
 Euskara Euskal Herrian  
 Eta bihotzetan

Gure euskal ohitura  
 Beti gogoratzen  
 Euskara gure alde  
 Beti du jokutzen  
 Euskal zahar ohiturak  
 Ipuinak kontatzen  
 Lehen Euskal Herrian  
 Euskara ohitura zen

Ailegatu da data  
 Euskal herrietan  
 Hartu gure txapela  
 Ta etorri korrikan  
 Taloak egin gero  
 Zuk ahal dituzu jan  
 Euskararen eguna  
 Euskaraz hizketan



### Abendaño ikastola – Gasteiz

6.B

Euskaldunak egiten  
Euskaraz bizitzak  
Baina batzutan oso  
Zailak dira hitzak  
Euskaraz mintzatzeko  
egiten iraultzak  
Euskal Herian datza  
Euskara hizkuntzak

Euskaldun den jendea  
Gehienak menditar  
Ere gustuko dugu  
Hizkuntza kanpotar  
Euskara guk bihotzan  
Ta beti herritar  
Baina beste jendea  
Errespetatu behar

Hizkuntza erabili  
Hitz egin euskara  
Begiratu ingurura  
Euskaldunak gara  
Hizkuntza ofiziala  
Herrikoa hara  
Guretzako onena  
Euskal eguna da

Batzuk mintzatzen dira  
Joatean etxera  
Mintzatu behar gara  
Joatean klasera  
Euskal Herrian bizi  
Goazen batera  
Ez badugu mintzaten  
Badoa galtzera

Euskara osatzeko  
Eraman ahoan  
Kalean ta etxean  
Euskara gogoan  
Kanpoan erabili  
Euskadin ahoan  
Euskaraz egiten da  
Euskal Herri osoan

Euskadiko hizkuntza  
Ahaztu latinaz  
Euskaraz mintzatzeara  
Gure egoeraz  
Lanean ta kalean  
Guk beti euskaraz  
Harro gaude Euskadin  
Gure nortasunaz



### Abendaño ikastola – Gasteiz

6.D

Olentzerok badauka  
Mendian etxola  
Opariak banatzen  
Egon da horrela  
Beti mendian dago  
Ikatza bilatu  
Eta meriendatzeko  
Du ardo botila

Gizon potoloa da  
Gure olentzero  
Aurpegia ikatzez  
Zikin du urtero  
Txapela eramaten  
Du bai egunero  
Hori da Olentzero  
Dator gabonero

Ikatza ere prestatzen  
Badabil tranpati  
Opariak egiten  
Ditu hainbat azti  
Ta eramaten ditu  
Asto eta guzti  
Gabonak heldu eta  
Opariak beti

Mendi tontor gainean  
Daude egurrekin  
Mari Domingi bera  
Olentzerorekin  
Biak lanean daude  
Han ikatzarekin  
Ondo konpontzen dira  
Biak elkarrekin

Olentzero festetan  
Ume guztiei  
Opariak ematen  
Ume batzuei  
Eta opari txarrak  
Ta ume txarrei  
Ikatza ematen die  
Ume gaiztoei

Antzinako ohitura  
Da euskaldunentzat  
Olentzero ta erre  
Sariak denontzat  
Gabonak heldu eta  
Gaztainak guretzat  
Gazta ta ardotxo  
Dira beraientzat



### Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz

5.D

Familia batean  
Hiru anai ziren  
Handiena baserri  
Batera joaten  
Ta eman ziotena  
Lan egin ondoren  
Urrezko kaka egiten  
Zuen astoa zen

Gauean lo egiteko  
Hartu du ostatu  
Eta anaia laster  
Nahi zuen esnatu  
Ostalariak orain  
Dirua eskatu  
Ostatuko jabeak  
Astoa aldatu

Etxera heldu zen ta  
Astoa erakusten  
Bere aita ta amari  
Erakusten hasten  
Konturatu zenean  
Urrerik ez zuen  
Anaia nagusia  
triste geratu zen

Anai ertaina joan zen  
Biltzera artoa  
Lan asko egin zuen  
Zirudien astoa  
Bertan pasatu zuen  
Urte bat osoa  
Nagusiak premian  
Mahai magikoa

Etxerako bidean  
Nahi zuen geratu  
Lo apurtxo bat egin  
Eta deskantsatu  
Ostatuan gau pasa  
Nahi du han lokartu  
Ostalari gaiztoak  
Mahaia aldatu

Anai txikia da ta  
Baserrira joaten  
Lan eta lan egiten  
Aspergarria zen  
Makila eman zioten  
Urtebete ondoren  
Makila kixki esan  
Eta hasi jotzen

Abisatu egin zion  
Ostatukoari  
Makilakixki ez esan  
Gure makilari  
Baina berak ez egin  
Kasu txikiari  
Makilak jo egin zion  
Ostalariari





### Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz

#### 5.D.1

Bere etxea ez zegoen  
 Ez bero ez epel  
 Haien ama ta aita  
 Migel ta Anabel  
 Ez zuten ez dirua  
 Erosteke pastel  
 Oso pobreak ziren  
 Hansel eta Gretel

Amaordeak esan  
 Utzi urrun arin  
 Aitak haurrak eraman  
 Azkar berarekin  
 Basoan biak utzi  
 Ta Hanselek jakin  
 Bidea markatuta  
 Ogi zatiekin

Txoriek ogia jan  
 Janari ez dute  
 E.T. bezain galdurik  
 Dute hilabete  
 Basoan galdurik ta  
 Ia ia elurte  
 Hansel arrebarekin  
 Bakarrik ta triste

Oinez basotik joaten  
 Bidea itsusi  
 Basotik nola ibili  
 Azkar erakutsi  
 Eta txokolatezko  
 Etxea ikusi  
 Etxea aurkitu zuten  
 Eta jaten hasi

Atso bat etxetik bai  
 Zegoen ateratzen  
 Ta etxera sartzera  
 Zituen gonbidatzen  
 Hansel eta Gretel bai  
 Zeuden orain sartzen  
 Etxe horretako atsoa  
 Sorgin gaiztoa zen

Gretel etxe garbitzen  
 Atsoa kantatzen  
 Ta Hansel bitartean  
 Ioditzen zegoen  
 Txukun txukuntzen asko  
 Ta bera dantzatzen  
 Gretel garbitzen jarri  
 Ta Hansel Ioditzen

Sorginak oso pozik  
 Hansel jan nahi zuen  
 Sorginak labea piztu  
 Ta espezieak botatzen  
 Gretelek sorginari  
 Ostikoa ematen  
 Eta labe barruan  
 Sorgina erre zen

Hansel ta Gretel pozik  
 Jarri ziren jaten  
 Gero Hansel ta Gretel  
 Loditu egin ziren  
 Etxea ta dirua  
 Denetarik zeukaten  
 Umezurtzen etxean  
 Bihurtu egin zuten



### Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz 5.D.2

Etxean ama eta  
zazpi antxume ziren  
geroago joan zen  
erosketa egiten  
eta zazpi antxume  
etxean jolasten  
ez ireki atea  
amak esan zuen

Otsoa jo eta jo  
pozik ateari  
pentsatu zuten zela  
eurentzat opari  
baina arreta jarri  
bere ahotsari  
ez zioten ireki  
atea otsoari

Otsoak erabaki  
arrautzak jatea  
azkenik lortu zuen  
ahotsa leuntzea  
kumeez eskatu zuten  
hanka erakustea  
otsoari ez zioten  
ireki atea

Otsoa hanka irinez  
betetzen zegoen  
antxumeen etxera  
otsoa sartu zen  
Otsoak antxumeen  
atea jo zuen  
azkenean atea  
ireki zioten

Antxumeek otsoa  
ikusit, oihukatu  
otsoa sartu eta  
denak ahoratu,  
otsoa egoeraz  
ez zen konturatu  
antxume txikiena  
erlojuan sartu

Amak erosketak fin  
etxera itzultzen  
txikia erlojutik  
joan ateratzen  
ama ikusi zuen  
hasi zen kontaktzen  
ta biak otsoaren  
bila irten ziren

Otsoa lotan dago  
ama gerturatu  
sabela ireki ta  
bera harrapatu  
bere umeak ikusi  
eskuetan hartu  
antxumeak atera  
ta harriak sartu

Bat-batean otsoa  
Hasi zen esnatzen  
eta zuhaitz azpitik  
hasi zen altxatzen  
eztarria lehorra  
egarria zuen  
edatera joan ta  
ibaira erori zen



**Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz**  
6.D


Zaplaztekoa merezi duzu  
burutik egoteagatik  
ni haserretzea lortu duzu  
zero ateratzeagatik

Ikasleak festa prestatu zuten  
ta eskola osoa aldatu  
handienek dena prestatu zuten  
ta guztiak gonbidatu

Ta bizirik iraun zuten biak  
gameluari eskertzen  
eta babarrunak bazkaltzera  
denak pozik joan ziren

Antxon ta bera askatu ondoren  
polizia deitu zuten  
polizia ailegatzean bai  
lapurrak hartu zituzten

Ja, ja, ja timatu dizuete  
hori al da zure kezka  
LG markakoa da baina  
Lady Gagarena ez da



### Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz

6.D 1

Txoria ondo zegoenean  
mendira eraman zuten  
umea pozik zegoen eta  
txoria askatu zuen

Euskal Herriko une honetan  
kartzelan sartuta hobe  
poliziak geldi esaten eta  
lapurrak kartzelan daude

Maddalen barka nazazu eta  
goaz EGA ikastera  
zapata garbitu ezazu ta  
goazen nire etxera

Zorabiatuta eta galduta  
agertzen dira etxean  
esnatuta biak troglodita  
botata zeuden lurrean

Gu baloiaren bila joan gara  
ta bat-batean harritu  
zuhaitz azpian hor bat-batean  
lau miloi euro aurkitu



**Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz**  
6.D2

Amonak eta Txanogorritxuk  
hasi patatak egosten  
hasi ziren mahaia jartzen ta  
otsoa askaldu zuten

Kotxez beteta errepidea  
abiatzean etxera  
bere denbora amaitzean  
bere etxetik atera

Orduan harriak eman zion  
eta ogroak dirua  
ta eskerrik asko esan zion  
ogroak pozik esan UA!

Nahi dut eguzki gehiago eta  
jateko nahi dut oilasko  
eta nik esaten dizut zure  
laguntza eskerrik asko

Ai zelako zaporea duen  
sagar polit hori  
gorrixka eta oso handia  
emadazu pixkat niri

Anbulantzian gure arbitroa  
burua du odoletan  
jokalariak baino okerrago  
ospitalera eraman

Estralurtarrak euskara eiten  
aizkolariak kontentu  
ikurrina atera zutela  
aizkolariak ohartu



**Angel Ganivet Ikastetxea – Gasteiz**  
6.D3

Caillou ordu batzutan sufritzen  
bere bibote luzeekin  
azkenean hori bukatzean  
Rigbi pozik ta atsegin

Berak printzesa salbatu zuen  
ta printzesak musukatu  
gure Fin jarri zen belauniko  
ta ezkontzeko eskatu

Sendatu zen eta ondo dago  
medikuari esker on  
medikuak begiratu zion  
sukarra jaitsi zitzaion

Caillou ohean hilda bai dago  
ama ez hasi egiten popo  
etxera joan ja deskantsatzera  
mundu honetatik kanpo



**Arantzabela ikastola – Gasteiz**  
5.A

### ZAZPI ANTXUMEAK

Baziren zazpi antxume  
Etxetxo batean  
Ama erosketara  
Joan zen goizean  
Eta erosketetan  
Zegoen bitartean  
Antxumeak bakarrik  
Gelditu etxean

Otsoa etortzen da  
Betetzera ahoa  
Otsoak atea jo  
Bazuen gogoa  
Zuen ama naiz eta  
Zuek zaintzera noa  
Ahots zatar horrekin  
Zu zara otsoa!

Otsoa azkar joan zen  
Antxumeen etxera  
Ahotsa fin arrautzaz  
Eginda gargara  
baina ahaztu zuen  
hanka beltza hara  
zu ez zara gure ama  
zoaz pikutara!!!

Otsoak hanka irinez  
Txuritu ondoren  
Antxumeen atea  
Berriro jo zuen  
Antxumeei horrela  
Tranpa egin zien  
Ama zela pentsatuz  
Ireki zioten

Ta antxumeak zeuden  
Etxean bakarrik  
Otsoa gezurretan  
atea irekirik  
Otsoa oso pozik  
Etxean sarturik  
Guztiak jan zituen  
Txikia izan ezik

Otsoak jan ondoren  
Lo geratu zuzen  
Ama etorri eta  
Hasi tripa mozten  
Antxumeak atera  
Ta harriak sartzen  
Ura edan ondoren  
Errekan ito zen



**Arantzabela ikastola – Gasteiz**  
5.B

### HIRU TXERRITXOAK

Amak bere etxetik  
Bota behar zituen  
Hain fuerte esan zien  
Beldurtu egin ziren  
Handiak izateko  
Ordua iritsi zen  
Bakoitzak bere etxea  
Egin behar zuen

Lehenak lastozkoa  
Nolako atea!  
Bigarrenak egurrez  
Zutabe hobeak!  
Handienak adreiluz  
Porlanez beteak  
Ta horrela egin zituzten  
Txerritxoek etxeak

Txikienak nahi zuen  
Etxera heltzea  
Otsoa etorri zen  
Hori bai trantzea  
Otsoak lortu zuen  
Behera botatzea  
Putz eta putz eginez  
Lastozko etxea

Txerritxoa negarrez  
Bestearen etxera  
Eta otsoa berriz  
Txerritxoak jatera  
Egurrezko etxea  
Nolako aukera!  
Putz eta putz eginez  
Etxea lurrera!

Jarraitu zuen otsoak  
Txerritxoek kontra  
Adreiluzko etxean  
Hurrengo erronka  
Putz eta putz eginez  
Otsoa itota  
Jarri zen oso haserre  
Ezin zuen bota!!!!

Otsoarentzat haiek  
Sorpresa bat zuten  
Ura lapikoan sartu  
Ta jarri irakiten  
Tximiniatik behera  
Lapikora zuzen  
Ipurdia erreta  
Ospa egin zuen





**Barrutia ikastola – Gasteiz**  
5.A

Niri gustatzen zait bai  
Ondo Noskirekin  
Eta txokolatea  
Nire lagunekin  
Ondo moldatzen gara  
Gu euskararekin  
Ta ondo portatzen da  
Pertsona denekin

Ikastola badago  
Hizkuntza ikasteko  
Eta ere daukagu  
Dena jolasteko  
Etorri behar zara  
guri laguntzeko  
euskararen astea  
guk dugu gustuko

Olentzero badator  
Ta dago klasean  
Euskaraz egiten du  
Bai bere lanean  
Olentzero etortzen da  
Ba asto gainean  
Dantza egiten dugu  
Bere egunean

Gustatzen zaizkigu bai  
Gure herriko jaiak  
Ume asko badaude  
Sargi ta erregeak  
Euskaraz abestu zuk  
Gure abestiak  
Gustatzen zaizkigu ta  
Gure inauteriak

Euskaraz egin eta  
txerria berria  
Zozketa irabazi  
Ta gure irria  
Txokolatezkoa da  
Txerria lodia  
Eta etorriko da  
Menditik txerria



### Barrutia ikastola – Gasteiz

5.B

Inauteriak gertu  
 Gaude ta begira  
 Euskaraz ere egin  
 Jira eta bira  
 Gu mozorrotzen gara  
 Ta a ze distira  
 Gure inauteriak  
 Politak bai dira

Bertso rapa gustuko  
 Errima ta hitza  
 Bertsolaritza dugu  
 Polita ekintza  
 Beti egiten dugu  
 Doinua da giltza  
 Abeste ari gara  
 Gu bertsolaritza

Euskal Herritik pasa  
 Dago oso bero  
 Euskaraz hitz egiten  
 Dago pixkat ero  
 Denok Olentzeroren  
 Lagunak bezero  
 Oso ondo portatzen  
 Da bai Olentzero

Euskal Herriko festa  
 Da oso polita  
 Korrikara etorri  
 Ta egin bisita  
 Hori iristeko denok  
 Daukagu irrika  
 Euskal Herrian maita  
 Da gure korrika



### Barrutia ikastola – Gasteiz 6.A

Ikastolan hasita  
Hitz egin euskaraz  
Klasean aspertuta  
Joateko irrikaz  
Txirrina jo du eta  
Atera ganoraz  
Ikastola bukatu  
Berriro erdararaz

Lomce-ren erruagatik  
Dena pikutara  
Klasean egoteko  
Badaukagu traba  
Hori ezin da pasa  
Euskaldunak gara  
Euskara ezin da galdu  
Gure hizkuntza da

Euskaraz hitz egiten  
Beti pozez gaude  
Euskaraz hitz egiten  
Patioan daude  
hizkuntza erabiltzen  
Zu ere bai zaude  
Euskaraz bizi nahi dut  
Ta hitz egin ere

Egin behar euskaraz  
Gu gauden lekuan  
Lagun guztiekin bai  
Hementxe eta han  
Ikastolan bezala  
Euskaraz bizitzan  
Guztiok batera bai  
Hitz egin kalean

Beti gaude bertsoan  
Klasean etxean  
Euskaraz bertsoak bai  
Baita ikastolan  
Bertsoak bai buruan  
Ta liburuetan  
Bertsoa euskara da  
Beti bihotzean

Euskara ikasteko  
Izan behar azkarra  
Ta ez desagertzeko  
Behar du indarra  
Euskaraz hitz egin zuk  
Nahiz ta izan zaharra  
Euskaldunok euskaraz  
Hitz egin beharra



### Barrutia ikastola – Gasteiz

6.B

Klasean ikastolan  
Kalean etxean  
Euskara beti dago  
Euskaltegietan  
Euskara beti dago  
lagunen artean  
Kalean ta etxean  
Leku guztietan

Euskaraz egiteko  
Beti nago galde  
Eta gu beti gaude  
Euskararen alde  
Gu beti triste gaude  
Euskararik Gabe  
Gure hizkuntzaren alde  
Gu beti bai gaude

Beti bai Barrutian  
Korrika euskaraz  
Euskal Herri osotik  
Korrika ganoraz  
Beto Korrikan gaude  
Beti bai irrikaz  
Korrika tipi-tapa  
Lagunekin goaz

Nik beti izan nahi dut  
Ikasi astero  
Hizkuntzetan onena  
Euskara da gero  
Horregatik nahi dugu  
Ikasi hilero  
Euskaraz egin behar  
Dugu egunero

Euskaraz egitea  
Bai txukunena  
Euskara ona da ta  
Gustuko duena  
Denok gustuko dugu  
Hori da zuzena  
Euskaraz bizi eta  
Polit politena

Beti euskaraz egiten  
Dugu guk seguru  
Klasean ta klasean  
Euskara badugu  
Gure bihotz denetan  
Euskara daukagu  
Lagunekin euskaraz  
egin dezakegu

Euskal Herrian euskaraz  
ta behar da bultza  
euskara polita da  
haxe da laguntza  
euskara da gurean  
betiko hezkuntza  
gure herrikoa da  
euskara hizkuntza



### Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz

#### 5.A

Zazpi antxume bizi  
amarekin pozez  
ama erosketetara  
joan zen bai barrez  
otsoa etorri zen  
denak jateko errez  
ez ireki atea  
inori mesedez

Amak alde egin zuen  
etxe horretatik  
pantxa-pantxa joan zen  
geroago atetik  
eta gero otsoa  
etorri bakarrik  
ez zioten ireki  
ahotsarengatik

Otsoa eztiaren  
bila abiatu  
gure otsoak ezta  
nahi zuen probatu  
Otsoak ezta jan  
ahotsa prestatu  
hanka erakusteko  
zioten eskatu

Hanka erakutsita  
otsoak egunon  
antxumeeek ikusi  
ta ez egin jaramon  
otsoa haserretu  
ta arnastu oso sakon  
otsoari ideia  
otu egin zitzaion

Otsoa hanka hasi  
zen irineztatzen  
antxumeeek sinistu  
dena egin zuten  
nahiz ta haiek sinestu  
hori ama ez zen  
azkenean atea  
ireki zioten

Otsoari ireki  
ama zela ustean  
ta otsoa poztuta  
pailazo moduan  
otsoak bilatu ta  
jan zuen orduan  
txikia ez zuen jan  
bera erlojuan

Erosketa eginda  
ama bueltatu zen  
txikia izan zenean  
ama aurkitu zuen  
eta bera ikustean  
hasi zen kontatzen  
dena kontatu ondoren  
otsoaren bila irten

Zuhaitz baten azpian  
otsoa aurkitu zuten  
amak hori ikustean  
tripa ireki zuen  
errekaren alboan  
zeuden ateratzen  
eta harriak tripan  
sartu zizkioten

Tripa barruan harri  
pilo bat zituen  
antxumeeak ta ama  
begiratzen zeuden  
ta esnatu zenean  
egarria zuen  
edatera joan eta  
errekan ito zen



**Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz**  
5.B

Baziren behin bi ume  
kabaina bateko  
seme-alabak ziren  
pobreen antzeko  
beti lanean zeuden  
ez zuten jateko  
amak esan zuen bai  
basoan uzteko

Aitak bakarrik utzi  
baso erdian arin  
triste eta negarrez  
ta bertan lo egin  
bidea markatuta  
ogi zatiekin  
txoriek ogia jan  
ta itzuli ezin


Triste eta galduta  
eta oinez segi  
etxe batera joan  
eta adi-adi  
begira txokolate  
etxeko atsoari  
berhala jakin ta  
jateko gehiegi

Atsoak gonbidatu  
gu etxera sartzen  
Txokolatezko etxea  
politari sar ginen  
sartu ta konturatu  
horrelako baten  
atso zaharra hori  
sorgin maltzurra zen

Hansel harrapatzean  
Gretel zegoen tente  
biak batera zeuden  
sorginaren menpe  
Hansel beti zegoen  
kaiolan bete arte  
Gretel beti lanean  
zegoen jo ta ke

Sorgina hasi nahian  
pozik Hansel jaten  
eta ipini zuen  
labea berotzen  
sorginaren asmoaz  
Gretel ohartu zen  
ta sorgina labean  
sartu egin zuen

Basotik ibiltzen ta  
bakarrik itxaron  
ama galdua eta  
amatxo triste on  
etxea aurkituta  
berarekin egon  
eta hirurak biziz  
etxean zorian



**Luis Elejalde ikastetxea – Gasteiz**  
6. maila

Edan zuen eta txiki-txiki  
bihurtu zen eta zera  
jarri zen eta saltoka hasi  
eta joan zen etxera

Gure barbakoa gozoa da  
biok meriendatzen dugu  
eta orain galduko dugu  
otarrain handia bait du

Arraultz guztiak hautsita zeuden  
ta negarrez neskabila  
pixkat lasaitu egin denean  
amak egin du tortilla

Kamioian zeuden gauza guztiak  
tximu kaiolara zuzen  
eta Kanarietako platanoak  
lurrera erori ziren

Aurkitu dut baloia  
baina errekan zera  
etxera joango naiz  
ni neu garbitzera



### Umandi ikastola – Gasteiz

5.A

Etxe bat dabil sutan  
 Leihoan amona  
 Handik hurbil badago  
 Oihuka aitona  
 Etorri suhiltzaileak  
 Eman zoriona  
 Hau da euren kotxean  
 Dagoen bonbona

Ahal duzu topatu  
 Jaten banana asko  
 Zuhaitzetan igo  
 Berak du gustuko  
 Kontuz zoaz oihanetik  
 Asko daudelako  
 Eta kontuan izan  
 Indarra duelako

Guk egin nahi badugu  
 Beti lasterketa  
 Motel motel korrika  
 Ze hanka polita  
 Lasai lasai uretan  
 Igeri beti eta  
 Buztan txikia dauka  
 Ta burua baita

Egunero badoaz  
 Maisu ta ikaslea  
 Eta guk nahi duguna  
 Asko ikastea  
 Gure helburua da  
 Patioan jolastea  
 Hobe asteburutan  
 Hara ez joatea

Ondo dago jolasten  
 Beti pertonekin  
 Asko gustatzen zaio  
 Esnea harekin  
 Eta gustatzen zaio  
 Egotea nirekin  
 Beti dago jolasten  
 Artilearekin





**Umandi ikastola – Gasteiz**  
5.B

Etxean sartu eta  
Agurtzen lehena  
Eta ez da izango  
Inoiz ez azkena  
Oso astunak dira  
Zaintzeko problema  
Betiko katuaren  
Etsai hoberena

Gozokiak jatera  
Etxetik etxera  
Otsoak basora ta  
Munstroak hirira  
Azaro bukaeran  
Ospatzen da, tira!  
Gau horretan mamuak  
Ateratzen dira

Kontuz objektu honekin  
Ez da jolasteko  
Txikia izaten da  
Ta dekoratzeko  
Borobila da eta  
Arropan jartzeko  
Eta ez erabili  
Arropa apurtzeko

Zorrozkailu batena  
Ez da oso laguna  
Izan ahal da handiena  
Eta ere txikiena  
Zorrotza den bolia  
Tinta ez duena  
Gorria, beltza eta  
Horia den tresna

Zeru lasterketetan  
Bera azkarrena  
Lurrean pertsonekin  
Da zapalduena  
Udan ta udazkenean  
Beti da zailena  
Solido ta urtuta  
Gauza politena



**Umandi ikastola – Gasteiz**  
5.C

Ume guztiek dute  
Oso gustukoa  
Tramankulua dute  
Lauki formakoa  
Lanerako erabili  
Ta jolastekoa  
Eta da mugikorra  
Baino handiagoa

Parkera joanez gero  
Zuhaitzetatik lortu  
baina ez da komeni  
ez gehiegi hartu  
eta paper barruan  
sartu eta marraztu  
gaztelaniaz pentsatu  
bi esanahi ditu

Material nagusia  
Matematikena  
Zentimetro neurtzen  
Oso ona dena  
Kolore askotan den  
Gauza luzeena  
Zuzenak diren marrak  
Sortzen disuena

Nire etxeko pareta  
Margotu du amonak  
Halloweeneko festan  
Egiteko broma  
Bizitzari kolore  
Ematen diona  
Baina ondo gelditu  
Hau bai zoriona!

Inoiz da azkarrena  
Ezta motelena  
Beti da larrosena  
Ta pisutsuena  
Ume txikitxoenek  
Jaten dute dena  
Itsulapiko baten  
Itxura duena

Barazkiak dira ez  
Gehiegitxo alai  
Ta makiltxoak berriz  
Bai oso oso guai  
Jolastean ordea  
Egiten dugu ai!  
Min asko egiten dun  
Animalia bai



### Umandi ikastola – Gasteiz

6.A

Egun horretan deitu zuten bai  
 Gauza garrantzitsuengatik  
 Rekorretako liburuetan  
 Bere txintxoia agerturik

Amak mangera eskuetan du  
 Umea baina dau lepo  
 Umea beldurrez hilda dago  
 Prest dago ni bustitzeko

Pentsatzeari utzi ta gero  
 Oihukatzen hasi argi  
 Jolasteari utzi ta entzuten  
 Hasi bere txakurrari

Jorge ipurdia hesian jarri  
 Txakurra zirikan hasi  
 Jorge zerura begira zegon  
 Ta txakurrak koxka egin

Eta non dago zure lazoa?  
 Saguak duela uste  
 Guzti horiek txorradak dira  
 Kendu egin dizkigute

Eta nik oso ondo eskatu  
 Dirua txinoetara  
 Eta nik oso ondo pasatu  
 Tori hau txiroetara

Guztiak pozik guztiak alai  
 Pupi famatua egin da  
 Orain klasera ikastera goaz  
 Ipuina bukatu da



### Umandi ikastola – Gasteiz

6.B

Poliziak kotxez ailegatu  
Eta lapurra bilatu  
Poliziek pistola atera  
Ta lapurra atxilotu

Herensugeak kumeak izan  
Hamar izan ziren  
baina bat hil zen gero  
txikiak eta politak

Borroka ondorioz denak hil ziren  
Astebete pasa jada  
Orain ez dago inor ere ez  
Orain mamu hiria da

Xabi Alonsok pistolarekin  
Zonbi maltzurak aurkitu  
Urrezko baloia eman diote  
Zonbiak hil egin ditu

Festa bat egin zuten etxean  
Banpiroarekin hilda  
Telebistako jende guztia  
Hiru mutil entrebistatuz

Erraldoia zorabiatuta  
Iratxoa lasai lasai  
Minutu bat pasa eta gero  
Lurrera erori zen bai

Neska negarrez hasi da eta  
Nazka eman dion eran  
Txakurrak negarrez ikusi eta  
Txakurrak musua eman



**Umandi ikastola – Gasteiz**  
6.C

Elkartu ziren momentuan ta  
Poz pozik ospatu zuten  
Denak elkartu ziren unean  
Kanpin batera joan ziren

Lapurra Txinako kartzelara  
Etorri hona mutiko!  
Sartu oraintxe furgonetara  
Eraman dute betiko

Lapurra hartu eta atxilotu  
Behartu autora sartzen  
Mercedes batekin bidaiatu  
Kartzelara eraman zuten

Eta beste borroka bat sortu  
Hobea da ta pakea  
Zergatik ez ondo eraman?  
Zeinen partidu tristea

Cristianori baloia buruan  
Eta lurrera erori da  
Efektuarekin doa baloia  
Ta porterialan sartu da

Txomin flipatu ta motibatu  
Ta zonbiekin mugitu  
Neska mutilak dantzan atera  
Ta gero denok dantzatu

Bakarrik geratzen zarenean  
Ez etorri arrastaka  
Triste eta bakarrik zaudenean  
Gero ez etorri kexaka



**Armentia ikastola – Gasteiz**  
5.A

**3 TXERRITXOAK**

Historia polit bat  
Goaz kontatzera  
Hiru txerritxoena  
goaz abestera  
amak esan baitzien  
zoazte kalera  
3 txerritxo hauek  
Joan ziren lanera

Bakoitza bere etxea  
Hasi zen egiten  
Vaina etxe guztiak  
Beti dira erortzen  
Lehena lastozkoa  
Egurra bigarren  
Eta hirugarrena  
Onena izan zen

Otsoa etorri da  
Txerriak badaki  
Apurtuko duela  
Etxeko estalki  
Bere etxe zakarra  
Bota du bortizki  
Ta bigarren etxera  
Ez da joan poliki

Egurrezko etxea  
Eraiki oso erraz  
Telebista ikusten  
Badaude gustotaz  
Otsoa ikustean  
Doaz abiaduraz  
Otsoak etxea bota  
Ta korrika doaz

Hirugarren txerriak  
Etxe bat egin du  
Ta otsoarengandik  
Salbatzea helburu  
Otsoak ezin du ez  
Etxe hori kendu  
Hiru txerritxo horiek  
Daude oso seguru

Teilatuan han dago  
Gure otso jauna  
Denok dugu ezaguna  
Gure otso iluna  
Txerriak beldurtuta  
Ez dute laguna  
Sua piztu baidute  
Hori argitasuna

Otsoa txarrena da  
Etxean sartu nahia  
Ta etxera joateko  
Badago ibaia  
Txerrien etxetara  
Sartzeko du zaila  
Eta hiru txerriak  
Irabazi etsaia



### Armentia ikastola – Gasteiz

5.B

#### ALIZIA LURRALDE MAJIKOAK

Gure protagonista  
Alizia du izen  
Ile horia du ta  
Ez dago oso gizen  
Zuhaitzaren ondoan  
Dago irakurtzen  
Minutu bat ta gero  
Ari da lokartzen


Alizia ederra  
Esnatu ta gora  
Untxia ikusi du  
Ta dauka ganora  
Untxiak prisa dauka  
Nora joango da  
Aliziak jarraitzen du  
Ta doa zulora

Aurkitu du Aliziak  
Mundo magikoa  
Nolakoa mundua  
Eroa zoroa  
Alizia nekatuta  
Siestako gogoa  
Zerbait gertatu dela  
Untxi arraroa

Untxia jarraitu ta  
Etxean sartzen da  
Asko handitu eta  
Zelako ikara  
Untxia aurkitu du  
Bere begirada  
Txiki egin berriro  
Doa gaztelura

Karta txarrak agertu  
Erregina dago  
Labirinto zoroan  
Atera ezingo  
Lagunak elkarrekin  
Daude nahiko ero  
Alizia aterako  
da hemendik gero

Agur untxi maitea  
Hau da amaiera  
Gogoan ditut orain  
Mila abentura  
Dena emango nuke  
Joateko etxera  
baina azkenean dena  
ametsa ote da?



### Armentia ikastola – Gasteiz 5.D

#### GARBANZITO

Garbantzito deitzen da  
Txikia ote da  
Inork ez du ikusten  
Zelako galera  
Aurrera joan nahi zuen  
Aitatxo batera  
Ipuin osoa goaz  
Orain kontatzera

Larrera joan dira  
Aita ta txikito  
Lanera joatean  
salto eta kito  
eskapatu egin da  
ze nolako tonto  
aitak esaten dio  
agur Garbantzito

Gurditik irten eta  
Dantzaten jolasten  
Letxuga ikusten ta  
Badago aspertzen  
Aspertu egin eta  
Letxugan esertzen  
Begiak itxi eta  
Hantxe lokartu zen

Han bazen behi handi bat  
Letxuga batekin  
Behiak gosea zeukan  
Ta on egin berdin  
Meriendatzerako  
Bapo letxugekin  
Behiak letxuga janda  
Garbantzitorekin

Gurdira itzuli ta  
Sustoa harturik  
Garbantzito barruan  
Ez zegoelarik  
Garbantzito oihuka  
Behiaren barrutik  
Aita bila hasi zen  
Larre guztietatik

Itxaron zuten behiak  
Kaka egin arte  
Orduan atera zen  
Itxaron hainbeste  
Bere familiarekin  
Sentitu zen aske  
Eta bere etxera  
Buelatu zen fuerte





### Armentia ikastola – Gasteiz

6.A

#### INTERNET

##### INSTAGRAM

Intagram argazkiak  
Publikatu hara  
Pertsonak esateko  
Politak bagara  
Ez esaten badute  
Guri ez zirrara  
Selfiak egitea  
Egiten du traba

#### WHATSAP

Watsap aplikazioa  
Oso ona da ta  
Denei hitz egiteko  
Hori dugu marka  
Mugikorra begira  
Haurra eta aita  
Besteak kaka dira  
Ipina watsapa

#### GMAIL

Aplikazio bat da  
Ba ez da tontua  
Txateatu hala dugu  
Ta ez du soinua  
Komunikazioa  
Da bere helburua  
Mezuak bidaltzeko  
Dago asmatua

#### YOUTUBE

Orrialdeak badu  
Handi helburua  
Bideoak ikusten  
Oso segurua  
Internetera sartu  
utzi liburua  
Youtube dugu orain  
arrakastatsua

#### TUENTI

Bagaude interneten  
Ta gauzak bilatzen  
Baina momentu baten  
Tuentia ikusten  
Nik musika gustuko  
Ta zu txateatzen  
Baina mundu guztia  
Tuentia erabiltzen

#### WIKIPEDIA

Hiztegi ona da hau  
Benetan Egia  
Edozer bilatzeko  
Da guztien gia  
Ta nik nahi dudalako  
Aurkitu guztia  
Interneten begira  
Wiki wiki



**Armentia ikastola – Gasteiz**  
6.B

Exerako lan denak  
Ez ditugu maite  
Oso aspergarriak  
Ingles eta mate  
Etixerako lanak bai  
Musika ta gazte  
zeren nahiago dugu  
Jolastu lo arte

Etixerako lan asko  
Ditugu ikastolan  
Jolasteko denbora  
Galduta lanean  
Etixerako lan gutxi  
Nahi badugu gelan  
Astea goitik behera  
Galtzen dugu bertan

Denok ikasten dugu  
Txanela ta mate  
Azterketak ditugu  
Beti astebete  
Eta horrela gaude  
Esplotatu arte  
Ikastea ondo dago  
Baina ez hainbeste

Ikastolan bost ordu  
Ta gero etxera  
Sartu bezain pronto  
Berriro ikastera  
hiru ordu pasata  
Korri afaltzera  
Ta bukatu ondoren  
bai lo egitera

Ez dugu nahi musikan  
Teoria jakin  
Kriston tostoiak dira  
Ta aspertu egin  
Negoziatuko dugu  
Irakaslearekin  
Kokoteraino gaude  
Teoriarekin

Etixerako lanena  
Jarri da grabea  
Etixerako lanetan  
Ez da inor trebea  
Ta lanak egin baino  
Hobe da parkea  
Ta ez dugu emango  
Denbora librea



### Armentia ikastola – Gasteiz

6.D

#### EUSKARA IKASTOLAN

Familiaren ahotik  
Doa umetara  
Euskara ikastea  
Ona izan bada  
Baina Euskal Herrian  
Oso gutxi gara  
Ikastoletan beti  
Egongo da euskara

#### EUSKALDUNAK

Euskaldunak bagara  
Munduko onenak  
Euskaldunak azkarrak  
Ta kirolariak  
Euskaraz hitz egiten  
Dira gure hiriak  
Oso barregarriak  
Dira euskaldunak

#### EUSKARA MUNDUAN

Euskara egiten da  
Europa ta Asian  
Euskara beti dago  
Gure bihotzetan  
Mundu guztia dago  
Euskara artean  
Euskara Euskal Herrian  
Ta mundu guztian

#### EUSKARAREN EGUNA

Abenduaren hiruan  
Hizkuntza aldatu  
Jolasten ta dantzatzen  
Euskara bultzatu  
Kamiseta berriak  
Denok aukeratu  
Laster etorriko da  
Gurekin ospatu

Euskaraz hitz egiten  
Dugu guk guk gustura  
Dantzak ta abestiak  
Guk denok batera  
Abesten ari gara  
Hau euskara bada  
Euskara kaleetan  
Horrelakoa da

#### EUSKARA ARABAN

Gure erabakia da  
Hitz egin horretaz  
Ez dakigu hitz egiten  
Beste zerbaitetaz  
Txarto gaztelania  
Ez egin erdararaz  
Euskara gurea da  
Araba euskaraz

#### ARGITXO


Txano gorria dauka  
Eta beti bera  
Euskaraz hitz egin ta  
Bera behar bada  
Sudur handia dauka  
Maite du euskara  
Munduan bizi da ta  
Oso txikia da

#### EUSKARA BIHOTZEAN

Denok dugu aukera  
Hori jakitean  
Euskara da bizitza  
Hemen islatzean  
Irribarrea sortu  
Hortan pentsatzean  
Gure barnealdean  
Beti bihotzean

#### EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

Euskal Herriak duen  
Jatorriarekin  
Euskararen beroa  
Sentitu gurekin  
Euskara mintzatzea  
Ere lagunekin  
Euskal Herrian beti  
Euskaraz hitz egin



**Toki Eder – Gasteiz**  
5.A

Txerriak amarekin  
Ondo bizi ziren  
Baina otsoa handik  
Gertu zen bizitzen  
Orduan txerritxoek  
Beldurra zeukaten  
Txerritxoek etxetik  
alde egin zuten

Bakoitzak bere etxea  
Egiteko asmoa  
Handienak bai egin  
Zuen lastozkoa  
Erdikoak ordea  
Du egurrezkoa  
Txikiak egin zuen  
Gogor ta harrizkoa

Lastozko etxea otsoak  
Bota nahi dit ama  
Otsoak putz egiten  
Bete zuen plana  
Etxea botatzea  
Bere gaurko lana  
Txerri handia joan zen  
Ertainarengana

Otsoa joan zen azkar  
Txerriak jatera  
Iritsi egurrezko  
Etxetxo aurrera  
Otsoa iritsi zen  
Etxea apurtzera  
Bi anaiak joan ziren  
Harrizko etxera

Otsoa harrizko etxera  
Presarekin joan zen  
Gure otso gaiztoa  
Saiatu zen sartzen  
Baina ez zuen lortu  
Asko putz egiten  
Tximinitik sartzea  
Erabaki zuen

Otsoa datorrela  
Teilatura igotzen  
Otsoa saiatu zen  
Tximinitik sartzen  
Belarriak jarrita  
Zaratak entzuten  
Eta hiru txerriek  
Sua piztu zuten

Otsoa hasi zen sartzen  
Beren tximinitik  
Eta erre egin zen  
Ipurdi guztitik  
Betiko ihes egin  
Txerrien etxetik  
Eta hirurak beti  
Egon ziren pozik



**Toki Eder – Gasteiz**  
5.B

Bazen ahate ama  
Izenez Maria  
Bost kume ta senarra  
A ze familia!  
Lau ahate txiki jaio  
Eta bat handia  
Etra bosgarrena zen  
Ahate itsusia

Beti esaten zioten  
Ze itsusia zaren  
Eta denek zioten  
Han barre egiten  
Ahate itsusia  
Denek zirikatzen  
Ahate itsusiak  
Alde egin zuen

Ahate itsusia  
Baserrira heldu zen  
Afaltzen hasi ziren  
Eta jan nahi zuten  
Ahate itsusia  
Hasi zen beldurtzen  
Eta handik korrika  
Hanka egin zuen

Ahate txikitxo  
Bakarrik zegoen  
Denbora pasa aurrera  
Bidaiatu zuen  
Ahate desberdina  
Joan zen handitzen  
Ahate itsusia  
Lakura heldu zen

Laku horren barruan  
Beltxarga ta igela  
Igeri egiten zuten  
Arrainek bezela  
Beltxarga batzuekin  
Elkartu horrela  
Eta esan zioten  
Oso ederra zela

Uretako isladan  
Ikusi zuen bai  
Beltxarga zela eta  
Oso pozik, lasai  
Beltxargek egin zuten  
Ospatzeko jai guai  
Haiekin geratu zen  
Pozik eta alai



**Toki Eder – Gasteiz**  
5. C

Erbiak esan zion  
Potolo Doraemon  
Dordoka zirikatu  
Ta min egin sakon  
Erbia bat-batean  
Harrotuta egon  
Eta lasterketa bat  
Proposatu zion

Lasterketa egitea  
Zen erabakia  
Luzea izango zen  
Eta ez txikia  
Orain lortu zuenez  
Bere distantzia  
Edatera gelditu  
Zen gure erbia

Bitartean dordoka  
Ari zen hurbiltzen  
Erbia berriz hasi  
Korrika egiten  
Dordoka motel-motel  
Distantzia hartzen  
Erbia gelditu zen  
Azenarioak jaten

Erbia geldi zegoen  
Dordoka hurbiltzen  
Bera ikusi eta  
Korrika hasi zen  
Dordoka oinez zegoen  
Eta ez zen gelditzen  
Dordoka ez zen gelditu  
Distantzia hartu zuen

Erbia hasi zen bai  
Zeozer pentsatzen  
Geroago hasi zen  
Siesta botatzen  
Eta justu dordokak  
Aurreratu zuen  
Ta orduan erbia  
Esnatu egin zen

Erbia Kezkatuta  
Esnatu ondoren  
Hori ikusi eta  
Damutu egin zen  
Erbia saiatu zen  
Dordoka harrapatzen  
Azkenean dordokak  
Irabazi zuen

Noizbait zeozer behar  
Baduzue lortu  
Korrika ta presaka  
Ezin da saiatu  
Bestela behar zara  
pila bat nekatu  
hobe da lasai joan  
eta ez gelditu



**Toki Eder – Gasteiz**  
6. A

Klasera bueltatu egin zen ta  
Oso gaixorik zegoen  
Inflamazio kendu zitzaion  
Klasea jarraitu zuen

Neska esnatu ta eman dio  
Merezitako guztia  
Muxuarekin haserretu da  
Zaplasteko bat handia

Ez dugu maite gaiztoa da ta  
Erleak ez du balio  
Itsusia eta tuntuna da  
Mikeli pikatu dio

Ibaik irabazi egin zuen  
Ta oso pozez beteta  
Egun batean prestatu zuen  
Bertsoaren txapelketa

Izarrak ikusi zituen bai  
Errepideko lurrian  
Zelako kaskarrekoa eman  
Bere buru gogorrean

Joxe ta Lur saltoka hasita  
Ta lurrera zorionez  
Ta negarrez hasi ziren biak  
Zorionaren eraginez

Azkenean guztiak pozik ta  
Jende guztia barrezka  
Eta joan zen ile-apaindegitik  
Eta egin zuten festa



**Toki Eder – Gasteiz**  
6. B

Eta azkenean biak batera  
Ilunabarra begira  
Eta guda bukatu da jada  
Musu bat ematen dira

Zonbi laguna harrapatu du  
Honek ez du zergatirik  
Lagunduidazu zonbiekin  
Zergatik harrapatu dit

Ohartzen gara lagunak dira  
Barrezka hasten dira eta  
Bira ta biraka hasten gara  
Ospatzeko kriston festa

Bere lagunak kalean daude  
Eta sustoa ematen  
Nahi zuten susto bat ematea  
Lagunak saltoak egiten

Oraintxe bertan hil egingo naiz  
Baina zu zaude bizirik  
mundu triste hau utzi behar dut  
baina ez egin negarrik

Amildegira gerturatu zen  
Zuloa zen handiegi  
Lokarriak zapaldu zituen  
Amildegitik erori





**Toki Eder – Gasteiz**  
6. C

Bueltatu dira eta esan digu  
Famatuen gustukoa  
Artista guztiak ados daude  
Zeinen polita koadroa  
Bueltatu dira eta esan digu  
Zeinen polita koadroa

Guztiak ondo zeudenez gero  
Oso pozik jarri ziren  
Txokolatea eta txurroak  
Festa handia egin zen  
Guztiak ondo zeudenez gero  
Festa handia egin zen

Urpekoa oso azkarra zen  
Argia bezala kazi  
Londresera iritsi zen ta  
Apustua irabazi


Orain abestu dezaket pozik  
Laralaralalalalara  
Laralaralalalalara  
Arratoia ez dago hemen  
Orain abestu dezaket pozik  
Arratoia ez dago hemen

Maxi eta bere oiloak  
Maxik harrapatu du  
Hiltzaile gaiztoa  
Nola harrapatu nauzu  
Kartzelara noa  
Zuk nire oiloak hil dituzu

Sutan hil beharko zaitut  
Baina ni persona  
ona naiz eta  
Polizia deituko dut  
Zuk nire oiloak hil dituzu  
Polizia deituko dut

Festa itzela prestatu zuten  
Opariak ta artoa  
Festa primeran pasatu zuten  
Umeez eta munstroa  
Festa itzela prestatu zuten  
Umeez eta munstroak

Oiloarekin atragantatu  
Hasi eztulka egiten  
Festa handia muntatu zuten  
Eta sugea hil egin zen  
Oiloarekin atragantatu  
Eta sugea hil zen



**Ramon Bajo – Gasteiz**  
5. maila

Gorria eta berdea  
batetik bestera  
pilotaren antza du  
jateko aukera  
gosea kentzeko da  
goxo da bera  
zuhaitzaren hostoak  
ditu baina ez da

Borobila, horia  
zulotxoak ditu  
gozoa dastatzeko  
ogiaz hobetu  
baina bere usaina  
ez zaigu gustatu  
zatikiak egiten  
lagundu ahal baitu

Begi berdeak ditu  
ta ez da altua  
ugaztuna da eta  
basoa lekua  
zuria ala laranja  
kolorea sua  
felinoa da baina  
ez da ez katua

Beti dago jendea  
pozik ta atsegin  
eta jolasten dute  
beti pilotekin  
ere jolasten dute  
asko arearekin  
basamortuen antza  
eta urarekin

Berarekin bagoaz  
beti bai korrika  
batzuetan itsusi  
bestetan polita  
eta beteta dago  
dirudi dortoka  
beti eramaten dugu  
gainean jarrita

Txikia zein handia  
borobil forma du  
marroia edo argia  
izan ahal ditugu  
bata bestearekin  
aurpegian ezkondu  
guk gizaki guztiok  
pare bat daukagu



**Ramon Bajo – Gasteiz**  
6. maila

Museo asko dago  
Europar gehiago  
eta Madrilan dago  
museoa Prado  
Frantzian ere badago  
Louvre ta Ponpido  
Artium museoa  
Gasteizen badago

Big Ben Londresen dago  
eta gustukoa  
Kaminante Gasteizen  
Pupi Bilboko  
Haizeen Orrazia  
da Donostiakoa  
Frantziako hiriburuan  
Garaipen Arkoa

Guk itsasoz beteta  
dugu koaderno  
Errusiatik gertu  
Kaspiar itsasoa  
Espainiaren ondoan  
Mediterraneo  
ozeano berezia  
da Atlantikoa

Irla pilo bat daude  
Bretaina Handia  
Mediterraneoan Kreta  
eta Sizilia  
Afrikaren ondoan  
gure Kanaria  
Irla nahiko txikia  
da bai Islandia

Hiriburuak daude  
mapetan bai jakin  
Espainian Madril dago  
eta Estonian Tallin  
Ingalaterran London  
Alemanian Berlin  
Paris Frantzian dago  
ta Irlandan Dublin



**Adurtza ikastola - Gasteiz**  
5. A

Hiru txerrikumeak  
hasi dira handitzen  
eta bere amatxo  
zaintzeaz aspertzen  
opil bat eman zien  
ta bota zituen  
eta hiru txerriak  
etxetik joan ziren

Handiak egin zuen  
etxe lastozkoa  
eta gero ertainak  
bai egurrezkoa  
adreiluzko etxea  
txerri txikitxoak  
eta sasi artean  
zelatan otsoa

Lastozko etxea bota  
otsoaren plana  
putz egiten hasi ta  
lurrera joan dana  
txerria garrasika  
otsoa ai ama  
nagusia joan zen  
ertainarengana

Otsoa joan zen azkar  
txerria jatera  
egurrezko etxera  
ta putz egitera  
ertainaren etxea  
erori lurrera  
bi txerriak korrika  
adreiluzko etxera

Otsoa adreiluzko  
etxera joan zen  
otsoak putz egin ta  
etxea ez mugitzen  
hiru txerri txikiak  
beldurtuta zeuden  
tximiniatik sartzea  
erabaki zuen

Zarata entzun zuten  
otsoa igotzean  
txerri txikiak azkarrak  
olioa sutan  
otsoak erre zuen  
ipurdi aldean  
txerriak zoriontsu  
beraien etxean



### Adurtza ikastola - Gasteiz

#### 5. B

Hiru seme-alaba  
aitatxo bat  
beraien aita oso  
zaharra gainera  
janaria lortzeko  
etxetik atera  
eta joan behar ziren  
lana egitera

Seme nagusitxoak  
ez du jatekoa  
baserri bat lan egin  
urtebete osoa  
baserritar opari  
asto magikoa  
urrezko kaka egiten  
opari astoa

Etixerako bidean  
gelditu egin zen  
ostatu zahar batean  
atsedena hartzen  
baina ostalaria  
hasi zen ohartzen  
ostalari gaiztoak  
astoa aldatu zuen

Baserri berdiner  
hau zen harrizkoa  
lanera urtebete  
gure neskatoa  
oso langilea zen  
ta urte osoa  
alabari opari  
mahai magikoa

Ostatuan geratu  
zen erabakia  
etixerako bidea  
zelako handia  
gure ostalariak  
bihurrikeria  
mahaia aldatu zion  
gure ostalariak

Orain lana tokatu  
anai gazteenari  
urtebete pasatu  
ari eta ari  
lan ondo egin ta gero  
eman zion sari  
makila magikoa  
eman zion opari

Etixerako bidean  
hasi zen nekatzen  
ostatuan sartu zen  
hartzeko atsedena  
ostalariak makila  
lapurtu nahi zuen  
makila ostalaria  
jo ta jo hasi zen

Semerik gazteenak  
egoera jakin  
dena itzultzeko esan  
zion arin-arin  
makila gelditzeko  
esan zion fin-fin  
etxera bueltatu zen  
gauza guztiekin



**Adurtza ikastola - Gasteiz**  
6. A

Ez zeukaten ezer ez  
ezin bizitzeko  
ba Hansel eta Gretel  
pobre direlako  
ez zeukaten dirurik  
ez zuten jateko  
amaordeak esan  
basoan uzteko

Basotik ibiltzen ta  
guztiak batera  
Txokolatezko etxe bat  
aurkitu gainera  
ta atso bat barrutik  
kanpora atera  
gonbidatu zituen  
etxean sartzera

Sorgin gaiztoa etxean  
goseak zegoen  
Hansel entzerratuta  
labea berotzen  
Gretel zegoen ikusten  
ta ohartu egin zen  
ta sorgina labera  
bultzatu egin zuen

Bidea ogiz markatu  
egin zuten errez  
etxera bueltatzeko  
lanez eta lanez  
txoritxoek ogia  
dena jan zuten  
beraiek jarri ziren  
triste ta negarrez

Txokolate etxera  
azkar sartu ziren  
atsoa ematen zuen  
baina sorgina zen  
eta sorgin gaiztoa  
hasi zen zigortzen  
Hansel loditzen jarri  
ta Gretel garbitzen

Umek erre zuten  
sorgina labean  
eta dirua aurkitu  
zuten zuzenean  
ama bilatu zuten  
poztu aurkitzean  
ta orain bizi dira  
txokolate etxean



**Adurtza ikastola - Gasteiz**  
6. B

Artaldea mendira  
joan zen Patxirekin  
beti bezala aurkitu  
behelainoarekin  
ezin zuen ikusi  
ta korrika egin  
koba batean sartu  
artaldearekin

Kobazulo barruan  
pasata egunak  
hor barruan jarraitzen  
zuen Patxi artzainak  
eraztuna ipini  
zion Tartalo jaunak  
hemen nago esaten  
zuen eraztunak

Patxi ardi larru bat  
gainean jarrita  
kobatik irtetea  
lortu zuen ti-ta  
baina bere egoera  
ez zen ez polita  
Tartalo bere atzetik  
haserre korrika

Tartaloren etxea  
ez koba arrunta  
Tartalok koba itxi  
harria hartuta  
Patxi eta ardiak  
daude beldurtuta  
Artzaina eta ardiak  
barruan sartuta

Artzainak makil bero  
batekin jo zuen  
Tartaloren begia  
makilaz erretzen  
Tartalo begi gabe  
korrika zegoen  
Tartalo haserretu  
ta bila hasi zen

Eraztuna kentzeko  
hatzamarra mozten  
Patxik amildegitik  
bota egin zuen  
oraindik eraztuna  
Tartalori deitzen  
Tartalo amildegitik  
itsu erori zen



**Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz**  
5.A

Asko erabili nahian  
Jarriko da bero  
Kontuz erabil zazu  
Ez izan bat bobo  
Ekartzea kostatu  
Portadan bat loro  
Teknologia behar da  
Funtzionatzeko ondo

Beti bere etxean  
Super segurua  
Ez doa gimnasiara  
Dago karratua  
Ez daki irakurtzen  
Asko liburua  
Oso jatorra da ta  
Ilehoria du, a!

Nik beti antzerkian  
Jendea ikusten  
Askotan umeekin  
Beraiei entzuten  
Ni jaio nintzen pozik  
Ta ere abesten  
Nik "La voz kids"  
programan  
Parte hartu nuen

Mota askoko gara  
Gorputza osoan  
Halloweenen bagaude  
Sorginen ondoan  
Zuria garrantzitsu  
Lokomozioan  
Beldurra ematen dugu  
Ikusterakoan

Bere musika hobe  
Ere bere jabe  
Eta jolasten baietz  
Hitz egiten trebe  
Ta musika entzuten  
Beren gustuko ere  
Oso majoak dira  
Eta politak be

Pertsona bat da eta  
Beldurra ez dugu  
Olentzeroren antza  
Eta bere buru  
Zigortzen du batzuetan  
Baina gero kendu  
Irakasten du eta  
Umore txarra du





**Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz**  
5.B

Itsasoan bizi da  
Eta ez Erroma  
Marmoka du gustuko  
Ta baita amona  
Izar bat du laguna  
Eta zoriona  
Belaki bat bezala  
Eta lagun ona

Animali ausarta  
Ez da ez kakati  
Denok bezala eta  
Bi begiak txiki  
Oso farregarria  
Niretzat da noski  
"Que hay de nuevo viejo?"  
Esaten du beti

Paiseak aurkitu  
Bai gure mundua  
Orri baten antza du  
Orrian lekuak  
Beti informazioa  
Baina ez ordua  
Lekuak bilatzeko  
Da gure objetua

Oso txuriak dira  
Eta beti bira  
Ez badago eguzkia  
Haiek gu begira  
Ez badago euririk  
Joaten gara ibaira  
Neguan eta udan  
Beti agertzen dira

Hau pertsonaia bat da  
Hau da hain txikia  
Oso oso azkarra da  
Hau bai da egia  
Baina pertsonai hauek  
Gauza berezia  
Pizzeria bat dauka  
Eta ez da handia

Buru onena dauka  
Ta asko pentsatu  
Bakarrik nahi duena  
Umeak jolastu  
Ta aterki batekin  
Eta ere zaku  
Bera mago ona da  
Mila truko ditu

Amonaren etxean  
Beti jolasean  
Otsoak jaten du ta  
Beti bere tripan  
Ehiztaria etorri  
Ta tiroa eman  
Kapa gorria dauka  
Ta ez da Superman



**Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz**  
5.C

Gauza bat da hori ta  
Gainera da hotza  
Ateratzen bazara ez  
Jarri manga motza  
Gauza horrek ematen du  
Baserri bildotsa  
Hori oso polita da  
Ta ematen du izotza


Ez da emakumea  
Ezta ere gizona  
Guk erabiltzen dugu  
Egiteko broma  
Batzuetan jendea  
Etortzeko hona  
Oso altu entzuteko  
Eta lauki forma

Bera oinez badoa  
Beti eskolara  
Begi marroiak dauzka  
Baina ez patxada  
Beti doa dendara  
Beti begirada  
Bihotz oneko neska  
Oso alaia da

Dibertigarria ta  
Ez da azterketa  
Koloreduna da ta  
Ez zure arreta  
Letra eta argazkiz  
Badago beteta  
Karratua da baina  
Ez radiokaseta

Objetu bat da eta  
Ez dauka haizea  
Oso erraza da zuk  
Bai punta kentzea  
Jendea batzuetan nahi  
Du jaten gosea  
Gastatzen dut nik baina  
Punta da luzea

Pertsona bat da bera  
Neska euskalduna  
Berak koleta dauka  
Da koletaduna  
Eta bere klasean  
Oso ezaguna  
Neska jator jatorra  
Betaurrekoduna



**Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz**  
5.D

Koloretsua da eta  
balio du dirua  
beti egon behar du  
oso marraztua  
horretarako behar da  
margo bat prestua  
koloretakoa ta  
ere karratua

Bera basatia da  
dauka boterea  
haragia jaten du  
nahi du ehizatzea  
katuen antzekoa  
ta dauka ilea  
animali onena  
basoko erregea

Ez da oso txikia  
estutxean doa  
paperean egiten  
zulo txikitxo  
punta zorrotza dauka  
min egitekoa  
borobiletarako  
gauza gustukoa

Autorik ederrena  
ta garestiena  
eta lasterketetan  
beti da lehena  
kotxerik hoberena  
ta bereziena  
kotxerik azkarrena  
ta da politena

Belarri altuak ditu  
da oso bizia  
basotik ibiltzen da  
salto berezia  
erosi dut gaur dendan  
kolore txuria  
ile leuna dauka  
ez da oso handia

Tamaina handitzeko  
behar du eguzkia  
kolorea ematen  
du baso guztia  
erleen gustukoa  
ta dauka ezta  
kolore askotakoa  
ta oso txikia



**Lakuabizkarra ikastetxea - Gasteiz**  
6. maila

Kanpotik metala du  
dago urez beteta  
kontu handia izan  
bestela erreta  
euria ari denean  
hor jarri txaketa  
beroa emateko  
balio du eta

Honekin jolastean  
algara galantak  
kolore diferente  
eta ere motak  
handia edo txikia  
ta beti zaratak  
oso erraza naiz ni  
teklatura daukat

Profesionalak dira  
hegan egiteko  
ta gaizki portatzean  
zuri zigortzeko  
oso itsusia da  
imajinatzekeo  
erratza dauka baina  
ez da garbitzeko

Gela asko ditu eta  
ez da oso baxua  
gurutze bat du atean  
eta da lekua  
gure hirian bi daude  
eta ez da estua  
jendea zaintzen du eta  
ez da medikua

Guk sortu dugun hitza  
bai fruitua dugu  
ez da hoberena ta  
ni nago seguru  
guk jaten dugunean  
zaporea helburu  
hiri baten izena  
jateko balio du

Objektu hau daukagu  
mundu guztikoa  
guk guztiok daukagu  
hau bezalakoa  
izan ahal da plastikoz  
ta kristalezkoa  
edalontzi gardena  
du bere antzekoa

GASTEIZKO BERTSO ESKOLA

AMAIA ZENTROA

Pérez Galdós z/g 01002 GASTEIZ

Tel: 945010505 fax: 945288275

Mug: 688695875 (Arduraduna: Iñaki Viñaspre)

e-posta:

[gasteizkobertsoeskola@yahoo.es](mailto:gasteizkobertsoeskola@yahoo.es)

[araba@bertsozale.eus](mailto:araba@bertsozale.eus)

[www.bertsozale.eus/araba](http://www.bertsozale.eus/araba)

